

Iñigo Urrutia Libaronaren *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo* liburuaren erreseina

(Review of the book *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*, by Iñigo Urrutia Libarona)

PRIETO ETXANO, Eunate

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena auzoa z.g.
48940 Leioa
eunate.prieto@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 16; 83-85]

Iñigo Urrutia Libaronak idatzi duen *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo* liburuaren berri ematen digu erreseina honek.

Giltza-hitzak: Iñigo Urrutia Libarona. Hizkuntza eskubideak. Hezkuntza sistema.

La siguiente reseña nos presenta el libro *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*, de Iñigo Urrutia Libarona.

Palabras clave: Iñigo Urrutia Libarona. Derechos lingüísticos. Sistema educativo.

Ci-dessous on fait le compte-rendu du livre *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo* (Droits linguistiques et langue basque dans le système éducatif), écrit par Iñigo Urrutia Libarona.

Mots clés: Iñigo Urrutia Libarona. Droits linguistiques. Système éducatif.



Berriki argitaratu den ikerketa-lan honetan¹, gaurkotasuna eta garrantzi ukazina duen gai bati heltzen dio egileak: Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta ipar Euskal Herriko hezkuntza-sistemetan, euskara ikasi ahal izateko dauden berme juridikoei, alegia. Bada, hezkuntza-eskubideetan erreparatuz, Euskal Herriko hezkuntza-sistemen gaineko azterketa sakona burutzen da monografia honetan eta etorkizunari begira, baliagarriak izan daitezkeen proposamenak aurkezten dira. Honetara, hezkuntza aldetik, nolakoa izan beharko litzatekeen etorkizuneko Euskal Herria eta zein izan beharko litzatekeen hezkuntza-sistemaren norabidea hausnartzen da, betiere oinarritzat zera hartuz: euskal gizartearen aniztasuna eta gizartearen hezkuntza-kohesioa uztartzearren, hezkuntza-sistema, herritarron hezkuntza integrazteko tresna eraginkorra bilakatu behar dela.

Gizartearen gure hezkuntza-sistemei buruzko eztabaida zabalik dagoen une hauetantxe, irakurleak gogoeta juridikoak eta iritzi iradokitzaileak topatuko ditu liburua osatzen duten zazpi ataletan zehar. Bada, hona hemen laburbilduz adierazgarrienak.

Lehenengo atalean, euskararen bilakaera historikoa zein juridikoa aztertzen da. Hezkuntza-sistemaren bitartez, sasoi bakoitzean abian jarri diren hezkuntza-politikak ikertzen eta sistematizatzen dira.

Bigarren atalak, berriz, nazioarteko zuzenbidea eta europar zuzenbidea aztertzen ditu. Halaber, hezkuntza gutxituei buruzko nazioarteko araubidea, baita hezkuntza-elkarte gutxituei buruzkoa ere ikertzen dira. Egileak ondorioztatzen duenari jarraiki, hezkuntza-eskubideek ikuspegi indibiduala eta aldi berean kolektiboa badute ere, oinarritzko eskubideak aitortzen dituzten xedepanak ikuspegi indibidualaz baliatzen dira nagusiki. Nazioarteko zuzenbideak ez du sakondu hezkuntza-eskubideen eduki kolektiboan, ezta hezkuntza eta lurraldearen arteko harremanean ere. Atal honetan, orobat, arreta berezia jarri zaio hezkuntza gutxituei buruzko Europako Kartari. Hezkuntza-eskubideei lotuz, euskara ofiziala den lurraldeei begira, ez dirudi Kartak hezkuntza-eskubide gehigarriak dakarrenik. Dena dela, egileak azaltzen digunaren arabera, berrikuntza juridikorik badakar Kartak euskara ofiziala ez den lurraldeetan: Nafarroako eremu mistoan, eremu ez-euskaldunean eta ipar Euskal Herrian, hain zuzen ere.

Hirugarren atalean hezkuntza ofizialtasunaren hezkuntza-eraginak aztertzen dira. Hartara, ofizialtasun bikoitzak zera dakar: bi hezkuntzei estatus juridiko berbera aitortzea. Hezkuntzen arte-

ko formazko berdintasun juridikoa, ordea, ez dator bat hezkuntzen egoera errearekin. Euskararen eta gaztelaniaren egoera ez da berdina. Egoera desorekatua da arrazoi politikoetan zein historikoetan oinarrituz. Ofizialtasun bikoitzak helburu berdintzailea izan behar du ardatz, eta botere publikoei jardura sustatzailea burutzerat bultzatu behar die. Hori da, hain zuzen ere, normalkuntza-prozesuaren oinarria. Ofizialtasun bikoitzaren aitorten juridikoa ez da, beraz, jardura estatikoa, aitorten hutsarekin agortzen dena. Ofizialtasun bikoitzak normalizazio-prozesua abian jartzea galdatzen du.

Laugarren atalak, ostera, hezkuntza-eskubidearen hezkuntza-dukia aztertzen du. Autonomia Erkidegoei dagokie hezkuntzako hezkuntza-sistema ezartzea. Ahalmen horren oinarri juridikoa, hezkuntza-normalkuntzari buruzko eskumenetan aurkitzen da. Bada, eskumen horretaz baliatuz sistema ezberdinak ezar daitezke. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak baieztatu duenari jarraiki, Konstituzio 27. artikulua ez du eredu elebidun zehatzik inposatzen. Halaber, Konstituzio Auzitegiaren aburuz, hezkuntza-eskubidea ez da kaltetzen, hezkuntza ulergarri batean hezkuntza jasoz gero. Beraz, hezkuntza oztopo ez denean hezkuntza-dukia helarazteko, hezkuntza-eskubidea ez da kaltetuko. Hain zuzen, hezkuntzaren helburua ikasleen nortasunaren garapena da. Eta euskara berezko hezkuntzat duen lurraldeko hezkuntza-sistemak, ikasleei bermatu behar die bertako berezko hezkuntzaren ezagutza.

Bosgarren atala Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaz arduratzen da. Honetara, eskumen banaketari buruzko hausnarketak eginez abiatzen da egilea. Hezkuntza, elkar banatutako eskumena bada ere, hezkuntza ofizialen irakaskuntzari dagokionez, zein ezaugarri berezi dituen azaltzen zaigu atal honetan. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemari so egiten badiogu, hausnarketarako gaia dugu hainbat txosten teknikoak baieztatzen duena; alegia, derrigorrezko hezkuntza bukatzen duten ikasle batzuek ez dutela euskara maila egokirik azaltzen, eta bereziki A ereduaz baliatuz hezkuntza jaso dutenek. Berebat, txosten horietan zera esaten da: ikasleen euskara ezagutza-mailak ereduarekin lotura estua izan arren, beste hainbat faktorek ere eragiten duela; adibidez, testuinguru soziolinguistikoak, familia eta lagunen hezkuntza-praktikak, hezkuntzekiko jarrerak, e.a.

Seigarren atalean, irakurleak Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko hausnarketak aurkituko ditu. Nafarroan, azken urteotan hezkuntza-arau berriek nafarren hezkuntza-askatasunak baztertzen eta mugatzen dituzte. Hezkuntza-politi-

1. URRUTIA LIBARONA, Iñigo. *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*. Iruñea: Lete/Pamiela, 2005; 857 orrialde.

ka ez da hizkuntza-integrazioaren bidetik abiarazten, ezta hizkuntza-aniztasuna sustatzearen bidetik ere, euskarari dagokionez behintzat. Hizkuntza-politika nafarraren norabide horrek ez du oinarri juridikorik, ez oinarrizko arauetan, ez Nafarroako hizkuntza-legedian, ezta Europako hizkuntza gutxituei buruzko Kartan ere. Kartak, hain zuzen, botere publikoei galdatzen die hizkuntza gutxituen aldeko jarduera eraginkorra buru dezatela. Orobat, Kartaren arabera, Nafarroako zonifikazioa zilegia izan dadin, euskararen sustapenari eta hizkuntzaren mailakatutako aurrerapenari bide emango dion tresna bilakatu beharko litzateke. Aitzitik, Kartaren indarrez, zonifikazioak zilegitasun osoa galtzen du, euskararen sustapenaren aldeko gizarte-eskaria blokeatzeko tresna gisa erabiltzen bada. Beraz, irakaskuntza arloan begi-bistakoa da egungo Nafarroako legediak euskararen normalkuntza-prozesuari egokitzeko premia duela, oztopo izateari utziz. Izan ere, Nafarroako hezkuntza-sistemak izaera integratzailea izan beharko luke, euskara, gaztelania eta Europar Batasuneko beste hizkuntza baten edo biren ezagutza bermatuz.

Honenbestez, zazpigarren eta azken atalak ipar Euskal Herriko hizkuntza-egoera aztertzen du. Ipar Euskal Herriari dagokionez, azken inkesta soziolinguistikoek erakusten digute euskaldunen kopurua pixkanaka beherantz doala. Familia bidezko euskararen transmisioa gero eta ahulagoa da eta euskararen geroa ez dago bermaturik. Izan ere, Frantzia Estatu unitarioa da, eta eskema horretara egokitzen dira norbanakoei aitorturiko hizkuntza-eskubideak. Hizkuntzei begiratuta, Frantzia Europako lurralderik anitzenetakoa da. Baina zuzenbideak aniztasun horri eman dion erantzuna zeharo mugatzailea izan da. Estatu-lurraldean, nazio-hizkuntza bat baino gehiago egon arren, Errepublikak hizkuntza bakarra dauka: frantsesa, alegia. Frantzian batasuna bultzatu da, eta ez batuketa, prozesu berdintzaile baten bitartez. Frantziako Estatuak ez du hizkuntza-elkarterik ez eta hizkuntza-talde gutxiturik ere aitortzen. Kontseilu Konstituzionalaren jurisprudentziaren arabera, hizkuntza gutxituetako hiztunei hizkuntza-eskubideak aitortzea, Errepublikaren banaezintasunaren aurkakoa da, berdintasun printzipioaren kontrakoa, eta baita frantziar herriaren batasunaren aurkakoa ere. Frantziako hizkuntza-legeria eskasa eta norabide bakarrekoa da. Errepublikako hizkuntza lehenestea eta sendotzea du helburu. Hezkuntza arloan, normaltasun linguistikoa frantsesarentzat gorde da. Lege-indarrez, hezkuntza-sistemaren hizkuntza frantsesa izanik, gainerako hizkuntzen garapena erabat mugatzen da. Ondorioz, lege babesik gabe, euskarazko irakaskuntzaren oinarri juridikoak erabat ezegonkorrak bihurtzen dira. Bada, egoera horren aurrean, ipar Euskal Herrian euskarari lege-estatus berri bat aitortzea ezinbestekoa bihurtzen da.

